

ASOCIACIÓN GALEGA DE MULLERES AFECTADAS POR CÁNCER DE MAMA «PUNTO E SEGUIDO»
Centro Cívico Eiris. C/ Terranova de Eiris, 7 Móvil: 676 568 914
15009 A CORUÑA e-mail: puntoeseguido@gmail.com

ANÉMOMA (Ámbito Actuación: MARINA BAJA)
C/ La Biga, 14 Tel.: 865 680 385 • Fax: 965 853 175 • Móvil: 620 897 324
03501 BENIDORM (Alicante) e-mail: info@anemomamarinabaixa.org

L'OLIVERA / Associació d'ajuda mútua i lluita contra el càncer de mama
C/ Canal, 6 Tel.: 938 752 311 (Lunes por la tarde)
08241 MANRESA (Barcelona) Móvil: 616 121 170
www.oliveramanresa.org e-mail: olivera@ajmanresa.cat

PICAM
Casal Cívic de la Riera Bonet. Carrer Ca la Còrdia, 5 Tel.: 672 021 403 / 648 526 625
08750 MOLINS DE REI (Barcelona) e-mail: picam@picam.eu

AGAMAMA
Centro Municipal «Hermanas Mirabal» Tel. y fax: 956 266 266
Plaza Real Hospital de la Segunda Aguada, s/n, 2.ª planta Móvil: 615 601 357
11012 CÁDIZ e-mail: agamama@agamama.org

AMMCOVA
C/ Miguel de Castro, 10 Móvil: 628 449 399
46002 VALENCIA e-mail: info@ammcova.com

ARIADNA / Associació de dones en la lluita de les malalties del càncer de mama
C/ Metge Carreras, 80, entlo., 3.ª Móvil: 937 784 708
08640 OLESA DE MONTSERRAT (Barcelona) Móvil: 689 554 715
www.ariadna-olea.org e-mail: associacioariadna@gmail.com

ESPERANZA / Asociación de mujeres con cáncer de mama de la Axarquía
C/ Enrique Valdulken, 19 Tel.: 951 250 127 • Móvil: 744 488 831
29700 VELEZ-MÁLAGA (Málaga) e-mail: a.esperanza@hotmail.es

ASOCIACIÓN SOLC / Associació Pel Suport i Ajuda en el Tractament del Càncer d'Alcoi i comarca
Convenio de colaboración con FECMA en todo lo relacionado con el Cáncer de Mama
C/ San Doméneç, 8, bajo Tel. y fax: 965 545 053
03801 ALCOY (Alicante) Móvil: 625 817 685
www.asociacionsolc.com e-mail: asociacio.solc@gmail.com / marce.solc@hotmail.com

Asociación Oncológica Extremeña - AOEX
Convenio de colaboración con FECMA en todo lo relacionado con el Cáncer de Mama
C/ Padre Tomás, 2 Tel.: 924 207 713
06011 BADAJOZ Móvil: 661 734 725 / 691 483 176
www.aoex.es e-mail: info@aoex.es

APAC Asociación Comarcal de Afectados por Cáncer
Convenio de colaboración con FECMA en todo lo relacionado con el Cáncer de Mama
Maestro Chanzá, 14-B Tel.: 965 340 665
03400 VILLENNA (Alicante) Móvil: 695 932 340
www.apacvillena.org e-mail: info@apacvillena.org

Asociación LUCHA Y SONRÍE POR LA VIDA de Pilas
Plaza de Belén 12 (Centro Comercial Plaza de Belén), local 1, bajo Móvil: 658 915 577
41840 PILAS (Sevilla) e-mail: alusvi@gmail.com

MACMA - Asociación de Mujeres afectadas de cáncer de mama de Aspe
C/ El Sol, 78. 03680 Aspe (Alicante) e-mail: aspe.macma@gmail.com • Tel.: 685 548 222

AMAC
C/ Puerta de Chinchilla, 3, escalera derecha, 1.º C Tel.: 967 669 141
02008 ALBACETE Móvil: 680 602 775 / 678 510 931
www.muñerescontraelcancer.com e-mail: amacalbacete@hotmail.com

APAMM
C/ Abad Nájera, 3, local 2, bajo dcha. Tel.: 965 217 955
03002 ALICANTE Móvil: 648 402 628
www.facebook.com/AlicanteApamm e-mail: apamm@apamm.es

AMAMEC
C/ Olegario Domarc Selser, 93, entresuelo Tel.: 965 447 552 • Móvil: 667 695 176
03206 ELICHE (Alicante) e-mail: info@amamec.org

AMAMA
C/ González Garbín, 17, entlo. 2 Tel.: 950 245 124 • Móvil: 619 099 441
04001 ALMERÍA e-mail: amama.al@gmail.com

Grup AGATA
C/ Tuset, 32, 7.º, 4.ª Tel.: 934 159 394
08006 BARCELONA Móvil: 649 062 892
www.grupagata.org e-mail: info@grupagata.org

GINESTA
C/ Pere el Gran, 32 Móvil: 639 280 708
08720 VILAFRANCA DEL PENEDES (Barcelona) e-mail: ginesta.vilafranca@gmail.com

AMUCCAM
Centro Cívico M.ª Cristina. C/ General Dávila, 124 Tel.: 942 225 354 • Móvil: 628 709 619
39007 SANTANDER (Cantabria) e-mail: amuccam@gmail.com

ACMUMA
C/ Teniente Olmo, 2, 2.º, puerta 8 Tel.: 956 514 515 • Móvil: 619 461 751 / 616 136 113
51001 CEUTA e-mail: acmuma@gmail.com

SANTA AGUEDA
C/ Cuesta, 16 Tel.: 926 413 109
13500 PUERTOLLANO (Ciudad Real) Móvil: 656 489 184
www.sagueda.com e-mail: sagueda@gmail.com

ROSAE
Avenida Primero de Julio, 46 Móvil: 615 112 169
13300 VALDEPEÑAS (Ciudad Real) e-mail: info@rosae.org.es

KATXALIN
Edificio Txara, 1, sección Lankide. Paseo de Zarategui, 100 Tel.: 943 245 608
20015 SAN SEBASTIAN (Gipúzcoa) e-mail: katxalin@katxalin.org

AOCAM
C/ Antonio Machado, 2-A, local Tel. y Fax: 959 812 345
21007 HUELVA Móvil: 659 781 169
www.aocamhuelva.es e-mail: aocam@aocamhuelva.es

ADIMA
C/ Alcalde Rovira Roure, 80 Tel.: 973 167 141 • Móvil: 695 580 681
25198 LLEIDA e-mail: adimalleida@gmail.com

ALMOM
C/ Burgo Nuevo, 15, 2.º dcha. Tel.: 987 230 041
24001 LEÓN Móvil: 605 034 100 y 691 205 430 / 34
www.almom.es e-mail: info@almom.es

ASAMMA
C/ Jaboneros, 11, bajo Tel.: 952 256 951
29009 MÁLAGA Móvil: 659 885 480
www.asamma.org e-mail: info@asamma.org / asociacionasamma@gmail.com

Asociación Antequera con las Mujeres Mastectomizadas / AAMM
C/ Encarnación, 10 Móvil: 653 771 695
29200 ANTEQUERA (Málaga) e-mail: aammantequera@hotmail.com
www.facebook.com/mastectomizadasantequera

ALBA
Carrer Sant Josep, 5, 1.º Tel.: 971 352 156
07702 MAHÓN (Menorca) Móvil: 676 979 110
www.albamenorca.es e-mail: albamenorca@hotmail.com

AMIGA
C/ Fernández Ardavin, 8, primera escalera, 5.º B Tel.: 968 216 668
30001 MURCIA Móvil: 678 660 457
www.amigamurcia.es e-mail: amigamurcia@gmail.com

SARAY / Asociación Navarra de Cáncer de Mama
C/ Ermitagaña, 11, bajo Tel. y Fax: 948 229 444
31008 PAMPLONA (Navarra) e-mail: info@asociacionsaray.com
www.asociacionsaray.com

ADICAM (Asociación de diagnosticadas de cáncer de mama de Pontevedra)
Casa Da Bota. C/ Valentín Losada, 1, 1.º Tel.: 986 307 158 • Móvil: 629 945 925
36940 CANGAS DE MORRAZO (Pontevedra) e-mail: adicamicam@gmail.com

AMATE
Avda. Príncipes de España, Grupo de 148 viviendas, bloque C, local 8 Tel.: 922 220 564
38010 SANTA CRUZ DE TENERIFE e-mail: amateasociacion@gmail.com • Móvil: 655 913 215

AMAMA - Sevilla
Avda. de la Cruz Roja, 38 Tel.: 954 540 213 • Móvil: 653 610 471
41008 SEVILLA e-mail: amama@amamasevilla.org

ACAMBI
C/ General Eguía, 33, 1.º izqda. Tel.: 944 421 283 • Móvil: 667 885 494 / 671 557 021
48013 BILBAO (Vizcaya) e-mail: info@acamibizkaia.org

AMAC-GEMA
Plaza del Pilar, 14, 3.º centro Tel.: 976 297 764 • Móvil: 640 294 009
50003 ZARAGOZA e-mail: amacgema@gmail.com

AMACMA DB
C/ Juan Piqueras, 1, pta. 1 Móvil: 649 625 154
46340 REQUENA (Valencia) e-mail: amacmad8@gmail.com

MARINADA VNG
Plaça de l'Associació dels Alumnes Obrers, s/n - Centre Cívic La Geltrú Tel.: 938 147 406
08800 VILANOVA I LA GELTRÚ (Barcelona) Móvil: 672 243 984
www.marinadavng.cat e-mail: marinadavng@gmail.com

AUBA / Associació de dones afectades de càncer de mama a Mallorca
Casal de la Dona. C/ Foners, 38, bajos Tel.: 971 775 530
07006 PALMA DE MALLORCA Móvil: 660 613 875 / 636 371 702
www.aubamallorca.com e-mail: aubamallorca@hotmail.com

ASAMMA / Asociación Alavesa de mujeres con cáncer de mama y Ginecológico
C/ Pintor Vicente Abreu, 7, bajo - Oficina 4 Tel.: 945 223 292
01008 VITORIA-GASTEIZ e-mail: asammavitoria@gmail.com

AJICAM (asociación jennense cáncer de mama)
C/ Sefarad, 20, local (entrada por C/ Dr. García Jiménez) Tel.: 953 885 191 • Móvil: 622 432 157
23005 JAÉN e-mail: ajicampor@ajicam.org

Asociación Mujeres con Cáncer Bahía
C/ Orquídea, 6 Móvil: 620 119 910
11500 PUERTO DE SANTA MARÍA (Cádiz) e-mail: asociacionmujeresbahia@gmail.com

Asociación Caudetana de lucha contra el cáncer - ACALUCA
Centro Social Vicente Lillo (antiguo Centro de Salud). C/ José Ruiz Ruiz
02660 CAUDERE (Albacete) e-mail: correo@acaluca.org • Móvil: 602 241 686

A.E.E.O. Asociación Española de Estética Oncológica
C/ Juan Rumeu García, 28, despacho 1G. Edif. Voluntariado Móvil: 616 609 850 / 607 934 308
38008 SANTA CRUZ DE TENERIFE e-mail: eoncologica@gmail.com / aeecdocente@gmail.com

ADIERAZPENA

BULARREKO MINBIZIAREN ESPAINIAKO FEDERAZIOREN (FECMA)

19 URRIA
2019

BULARREKO MINBIZIAREN
NAZIOARTEKO EGUNA



ADIERAZPENA 2019

BULARREKO MINBIZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Bularreko Minbiziaren Espainiako Federazioak (FECMA) eta horren kide garen 45 elkarteok urriaren 19a **Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna** izendatu dugu. Aldi berean, bularreko minbizia emakumeen artean ohikoena eta tumoreen lehenbiziko heriotza-kausak dela gogorarazten dugu.

Pazienteen elkartze-mugimenduekin dugun konpromisoa dela eta, **pozik gelditu gara** gure osasun-sistemak sustatu eta kudeatzen dituen **bularreko minbizia goiz detektatzeko programen garrantzia azpimarratzen gogoz lagundu izanagatik**, eta sistema hori publiko, unibertsal, doako eta kalitatekoa izaten jarraitzearen alde gaude, sanitatea gure Ongizate Estatutaren euskarri utziezina baita.

Halaber, programa horien estaldura handitzen lagundu dugu; izan ere, hamar emakumeren artean zortzik bularreko minbizia goiz detektatzeko probetan parte hartu dute. **Minbiziari sektore aniztetik ekin behar zaio, dimentsio soziala duen osasun-arazoa baita**; hortaz, osasun-langileen lanak ez ezik, gizarte-langileen, fisioterapeuten eta psiko-onkologoen lanak ere garrantzi handia du.

Beti adierazi dugu **ekitateak** gure Osasun Sistema Nazionala kudeatzen duten **osasun-administrazio guztien printzipio estrategikoa izan behar duela**. Ezin da onartu Osasun Sistema Nazionalaren esparruan, pazientearen egoitzaren arabera, minbizia goiz detektatzeko programetan, diagnostikoetan, terapietan, tratamenduetan edo botikak eskuratzekoan mugarik, bazterketarik edo diskriminaziorik egotea.

Oso baliagarria izango litzateke, hortaz, autonomia-erkidego guztiak azterketan, ebaluazioan eta neurrietan inplikatzeko, **Guía metodológica para integrar la Equidad en las Estrategias, Programas y Actividades de Salud** (Ekitatea Osasun Estrategia, Programa eta Jardueretan txertatzeko Gida metodologikoa) agiriaren eguneratzea oinarri hartuta.

Osasun Sistema Nazionalaren Minbiziaren gaineko Estrategiaren eduki, helburu eta gomendioen alde jokatzeko dugu, eta hori aztertzen, eguneratzen eta ezartzen jarraituko dugu. Izan ere, Estrategia horrek autonomien estrategientzako aukerako esparrua eskaintzen du.

Bularreko Minbiziaren Espainiako Federazioaren ustez (FECMA), **bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arretak lehentasuna du eta kezkatu egiten gaitu**, pazientearen bizitza pertsonalean, familiarrean eta profesionalean baitu eragina eta behar konplexuak sortzen dituelako; baina emakume horiek ezin diete itxaropenari eta etorkizunari uko egin. Gaixotasunaz normaltasunez mintzatu behar gara, gaixoak bakartu gabe, zure minbizia eta nire minbizia gure minbizia direlako.

Estatistiken arabera, metastasiak bularreko minbizi lokalizatua diagnostikatu zaien emakumeen % 30i erasango dio, eta ehuneko hori diagnostikatzerakoan metastasia dutenen % 5-6ri gehitzen zaio. Datu estatistiko baten hozkeriaz haraindi, egoera horrek gaur egun ez

duela sendabide ziurrik entzutea da gogorrena. **Baliagarria litzateke, beraz, pazienteen parte-hartzearekin, Osasun Sistema Nazionalaren minbiziaren kontrako Estrategian bularreko minbizi metastasikoaren arreta-eredu integrala txertatzea.**

Ikerketan izandako aurrerapenek, **berrikuntza** eskuragarri izateak, prebentzio-politikek, asistentziaren kalitateak eta immunoterapiaren erabilera zabaltzen dute tumore erasokorrenetan medikuntza pertsonalizatua garatzeko aukera, eta bularreko minbizi metastasikoa errotik kentzea, edo behintzat kontrolatzea, ahalbidetuko dute, tratamenduak funtzionatzen duela esan nahi baitu horrek. Berrikuntzari esker, osasun-prestazioak efizienteagoak izan daitezke, diagnostikoak aurrera daitezke eta tratamenduak eta terapiak hobetu, eta banakako doitasun-medikuntzan aurrera egin beharra dago, zeren pazieten guztiak ez baitira berdinak eta aplikatzen diren terapia guztiak ezin baitira berdinak izan. **Ikerketan eta berrikuntzan gehiago inbertitu behar da**. Jakin badakigu tratamendu onkologikoak garestiak direla, baina inork ezin du pentsatu osasunak prezio tasatua izan dezakeenik. Minbizia gelditzen ez bada, ikerketan eta berrikuntzan ezin izango da etenaldirik egon.

Bularreko Minbiziaren Espainiako Federazioaren aburuz (FECMA), **arreta berezia eman beharko zaio 40 urte bete aurretik bularreko minbizia diagnostikatzen zaien emakumen kopuruak gora egin izanari**. Kasu horietan, emakumeak jasotzen dituen tratamenduen ondorioak ezagutu nahi ditu; gero eta maizago agertzen da ugalkortasunaren eta bularreko minbiziaren arteko erlazioa eta ugal-bizitzaren amaiera naturalaren aurretik arrisku-egoeran daudenei ugalkortasuna zaintzeko modua. Horrelakoetan, gomendagarria da, edozein tratamendu hasi baino lehen, ugalkortasuna zaintzeko aukeraren berri ematea.

Osasunaren aldeko Estatu Itun baten alde agertzen gara berriro ere, osasun-administrazioen arteko lankidetzari handiagoa eta hobeagoa izan dadin; pazienteen elkartze-mugimenduen, sozietate zientifikoaren, osasun-profesionalen eta Parlamentuan ordezkariak duen alderdi politikoen alde, alegia, gure osasun-sistemaren erronkei eta, berariaz, onkologian sortzen diren erronkei, aurre egiteko.

Arras kezkatzen gaituzte **biziraupen luzeko** pertsonen eta horien senideen arreta-gabeziek, paziente onkologikoen **errehabilitazio**-beharrek eta **zainketa aringarrien** premiek.

Berriro adierazten dugu **biztanleen minbizi-erregistro homogeneoak, egituratuak eta eguneratuak egin beharra dagoela**, kasu berrien eta heriotzen, gaixotasunaren intzidentziaren, diagnostikatutako pertsonen adinaren, metastasi bidez sortutako minbizi kasuen edo minbizia diagnostikatu zaien adin ugalkorreko emakumeen berri izateko.

Minbizia senda dadin horri aurre egitea da gaur egungo erronka, baina jakin badakigu agian, lehenago, ezagutza, ikerketa eta teknologiaren bitartez, gaixotasuna kroniko bihurtzeko moduz hausnartu beharra dagoela, pazienteen egoerari eta bizi-kalitateari kalte egin gabe. **Pentsa dezagun paziente orengan bizitza pertsonal, sozial eta laborala duen pertsona gisa.**

Guk, bularreko minbizia dugun emakumeok, **egunero esnatu nahi dugu eta izarrei so egin nahi diegu, gure seme-alabei irribarre egin, gure afektibitate-harremanei eutsi, ilobei musu eman, ametsak bizi, gure lanak garatu eta** lurraren erdia eta zeruaren erdia partekatzen dugun **gainerako emakumeen desirak izan.**